

Asier Barandiaran. Bertsolaritza: tradizio modernoa

Aurreko 2014ko urtarrilaren 27an Asier Barandiaran, Nafarroako Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea eta UNAVeko eta EHUKo irakasle ohia, “Bertsolaritza: tradizio modernoa” izeneko mintzaldia eskaini zuen. Bertsolaritzaren xehetasunak trebetasun handiz azaldu zizkigun, *Bertsolari* filmaren pasarte bat baliatuz eta garai ezberdinetako bertsolari ugariren obra ere erakutsiz. Besteak beste, Beñat Etxepareren, Txirritaren, Xalbadorren eta Sebastian Lizasoren bertsoak irakurri eta gozatzeko aukera izan genuen. Hitzaldia amaitu zenean, egungo bertsolaritzaren eta euskal kulturari hainbat gai jorratu ziren, publikoak planteatutako hainbat galderaren bitartez.